

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### Legazpiko Agenda 21eko Foroa 2011ko otsailaren 24an egindako tailerraren akta

#### Tailerraren laburpena, 4 lerrotan:

- *Eguna, ordua, tokia:* 2011ko otsailaren 24an, 18:30etik 20:00etara, Legazpiko udaletxean.
- *Parte-hartzaile kopurua:* 28 pertsona.
- *Aztertu den gaia:* Nola egingo dugu Legazpin parkeetako paperontziak gehiago eta hobeto erabil daitezen? Arazoa konpontzeko ideiak, ideia gintza prozesua eta sormen-teknikak aplikatuz.



### Legazpiko Agenda 21eko Foroak 10 urte bete ditu!

Irudi honekin, sagar-zuku ekologikoarekin eta Edurne Gutierrezek egindako etxeko pasteltxoekin (eskerrik asko Edurne eta Floren, oso goxoak!), hasiera eman diogu gaurko tailerrari.

10 urteko ibilbideak ondo merezi du esker ona eta ospakizuna; beraz, edalontziak eskutan, elkarrekin partekatu dugun hamarkadaren alde topa egin dugu eta, gutxienez, hamar urte gehiago egin ditzagula (gu eta parte hartzeko talde honetara etorriko diren berriak) eta ikasten jarrai dezagula opa diogu elkarri. Topa!!!

Eta, hemendik, **ESKERRIK ASKO** gaurko tailerrean parte hartu duzuen guztioi eta urte hauetan zehar Legazpiko Agenda 21eko Foroa Euskal Autonomia Erkidegoko parte hartzeko talde erreferente izatea lortu duten guztiei.



**Eskerrik asko!**

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Bixente Garmendia (zinegotzia) • Eugenio Gil • Joxan Auzmendi (Ingurugela Legazpi) • Floren Gutiérrez • M<sup>a</sup> Jose Cantero (Nagusilan) • Isabel Vallejo (Olazabal institutua) • Marian Amondarain (Zumarragako ospitalea) • Begoña Santillan (Iratzarri) • Arantxa Ibarreta (Iratzarri) • Iñaki Mauleon (Domingo Agirre eskola) • Manuel Fernández (Nagusilan) • Junkal Fernández • José Luis Cid • Pedro Barroso (Nagusilan) • José Ramón Hernández (Nagusilan) • Javier Iraeta • Iñaki López de Arbina • Ana Manzanos (Olazabal institutua) • Marivi Salgado (Zumarragako ospitalea) • Sagrario Díaz • M<sup>a</sup> Angeles Prieto (Buztintegi) • Jon Erramun Uribeetxeberria (Agenda 21eko zinegotzia) • Sote Plazaola (Legazpiko alkatea) • Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria) • Ainhoa Otaegi eta Virginia Amilibia (Mamikin taldea) • Iciar eta Zorione (Prometea, SC).

Eta 10 urte hauetan bidelagun izan ditugun eta Foroa elikatu eta aberastu duten legazpiar guztiei, **mila esker**.

**Saio desberdinarekin** ospatu dugu urteurrena; saio desberdina eta bizia.

Momentuko energiarekin, indarrez beteta, tailerrean kokatu gara. Tailer berezia, gauza desberdinak elkartu nahi izan ditugulako:

- *Ospakizuneko tailerra* izan dadila eta, sari gisa, bertan parte hartuko dugunok "zerbait" eraman dezagula etxera: Fororako eta eguneroko bizitzarako baliagarria izango zaigun zerbait.
- Urteurrena ospatzeaz gain, *gai zehatz bat landu dugu saioan*: benetako erronka arazoa konpontzeko ideiak sortzea izan da.
- Eta lan hori *sormena erabiliz* egin dugu, taldearen baliabideak balioesten.

Horretarako, gaur gure artean izan dira Ainhoa Otaegi eta Virginia Amilibia, sormen-trebetasunen Mamikin-Gimnasio enpresako sormenean adituak. Beraiek izan dira gure gidariak eta lan egitera bultzatu gaituzte aretoa proposamenekin eta ideiekin bete arte.



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### Gaurko **erronka!**

Nola egingo dugu Legazpin parkeetako paperontziak **gehiago eta hobeto** erabil daitezen?

Hori da galdera, tailerraren ordu eta erdian taldea bultzatu duen erronka.

**Erronka benetakoa eta oraingoa da:**



- Orain dela gutxiko argazkietan ikusten denez, Legazpiko parke batzuetan dauden paperontziak ("betikoak" eta birziklatzekoak) ez dira behar bezala erabiltzen eta nabarmena da zikinkeria. Gainera, egoera hori okerragoa da udan, kalean denbora asko pasatzen dugunean.

Gaurkoa, gainera, **anbizio handiko erronka da:**

- Hauxe izango da gaurko talde-lanaren helburua: guztion artean ideiak sortzea, Legazpin dauden paperontziak gehiago eta hobeto erabil daitezen. Zenbat eta ideia gehiago, hobe. Eta ideia desberdinak, orijinalak, aurrera eramateko modukoak,... badira, hobe.

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Testuinguruan kokatuta, Ainhoak eta Virginiak gure burua lanean jartzen lagundu digute. Eta gaur hasten dugun sormen-prozesua hasi baino lehen aintzat hartu behar ditugun oinarrizko gauzak azaldu dizkigute:

### Ideiak sortzeko eta sormena lantzeko prozesuaren oinarrizko kontzeptuak:

Ideiak sortzeko edozein prozesutan 3 fase bereizten ditugu:

- **1. Fasea, erronka ulertzea:** Zer nahi dugu? Zein da gure helburua? (kasu honetan, galdera argia da).
- **2. Fasea, ideiak sortzea.** Urrats honetan ideia asko sortzea da garrantzitsua. Zenbat eta ideia gehiago, hobe. Horretarako, pentsamendu dibergentea erabiliko dugu (gogoan izan pintza irekia): epaia desberdinu eta ideiak bilatuko ditugu (ideia asko, desberdinak,...) eta guztiak dira baliagarriak.
- **3. Fasea, ideiak aukeratzea.** Aurreko fasean sortutako ideiak hartu eta lehenetsun araberako, sailkatuko ditugu. Horretarako, pentsamendu konbergentea erabiliko dugu (itxi egingo dugu pintza): proposamenak ebaluatuko ditugu eta gure helburua lortzeko aukera egokiena bilatuko dugu.

Eta fase bakoitzean, sormen-teknikak ditugu lagungarri. Adibidez, ideiak sortzeko 2. Fasean honako teknikak dira lagungarri: brainstorming (ideia-jasa), brainwriting (ideia-jasaren aldera bat baina idatziz egitekoa) edo inbertsioa (proposatutako kontrako helburua lortzeko lituzkeen ideiak edo proposamenak pentsatzea; adibidez, gure kasuan parkeak zikin egotea).

Kontzeptuak ulertuta eta berotze-arietak egin ondoren gure neuronak martxan ipini eta gero, 3 talde osatu ditugu eta, urratsez urrats, ideiak sortzeko prozesuari ekin diogu.

Lan dibertigarria izan da, batzeko lana, burua nekatzeko lana, gehiago eta gehiago pentsatzekoa,... zorrotza eta emaitzak lortu dituen!

### Arazoa konpontzeko ideiak: Ze proposamen otu zaizkigu paperontziak gehiago eta hobeto erabil daitezten?

“Nola egingo dugu Legazpin parkeetako paperontziak gehiago eta hobeto erabil daitezten?” izan da ezarritako erronka eta hiru taldek, guztira, 200 ideia edo proposamen baino gehiago sortu dituzte.





## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Horietatik, 13 aukeratu dira banakako bozketa egin eta gero. Hona hemen aukeratutakoak:

### Arazoa konpontzeko aukeratutako ideiak:

- Paperontziak behar bezala erabiltzen ez diren ohiko tokiak aztertu.
- Paperontzietan haur-motiboak jartzea.
- Paperontziak modu egokian erabiltzeko kanpaina:
  - eskoletan
  - karteletan
  - komunikabideetan
- Ondo jaten erakutsi (litxarrerri gutxiago, ontzi gutxiago, zabor gutxiago,...)
- Hezitzea, heziketa. Hezi, hezi, hezi. Ikastola, familia eta, batik bat, gurasoak.
- Litxarrerriak saltzen dituztenak ere tartean sartu.
- Aurreko eta geroko argazkiak jarri parkeetan, paperontzien ondoan: Zikina-garbia.
- Ikasleekin taldeak osatu "isunak" jartzeko.
- Aste zikina antolatu.
- Hondakin gutxi sortzen duten produktuak erosi.
- Paperontzietan zuhaitzak eta paisaiak margotu.
- Hondakinekin hondatutako paisaien irudiak jarri.
- Paperontziak jartzeko leku estrategikoak aurkitu.

Baina horiez gain, beste asko daude!

Hurrengo taulan, brainstorming eta brainwriting teknikak erabiliz sortu diren ideiak jaso ditugu: Mailatan sailkatu ditugu eta zein taldetan proposatu diren adierazi dugu.

Konponbideak (brainstorming eta brainwriting teknikak)	A taldea Iciar	B taldea Virginia	C taldea Zorione
Paperontzien diseinua			
Paperontziak hautsontziarekin.	●		●
Zoruan paperontziraino doan bidea marrazkiekin egin.	●	●	●
Kolore erakargarriekin margotu.	●	●	●
Paperontzi organikoa, konpost egiteko.	●		
Paperontziak musikarekin, zerbait botatzen dugunean zarata aterako dutenak.	●	●	
Legazpirako diseinu propioa.	●		
Paperontziak piropoak bota ditzala.	●		
Jasotzen duen hondakina identifikatuko duen paperontzia diseinatu; horrela, erabilera egokia denean argi berdea eman dezala eta erabilera okerra denean argi gorria.	●	●	
Paperontziak hitz egin dezala (adibidez, eskerrak eman ditzala zerbait bertara botatzean, "zure herriak eskertzen dizu").	●	●	●
Paperontziak marrazki dibertigarriak izan ditzala.	●		●
Paperontzien diseinua hobetu, erakargarriak izan daitezen ("aho handi bat", etabar).	●	●	●

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Konponbideak (brainstorming eta brainwriting teknikak)	A taldea Iciar	B taldea Virginia	C taldea Zorione
Erraz garbi daitezkeen paperontziak.	●		
Paperontzi ibiltariak, mugikorak izan daitezela, erabiltzaileengana hurbilduz edo jende gehiago dabilen lekuan jartzeko.	●	●	
Saskibaloiko saskiak moduan jartzea, saskiratzeak egiteko.		●	
Paperontziak marrazteko lehiaketa egin (karikaturak, ...etab.)		●	●
Irudi animatua eman eta hondakinak izan daitezela haien janari.		●	
Argidun karteekin seinlatu.		●	
Gero trukatu egin ahal izango den txarteltxo eman dezala.		●	
Pertsonekin identifikatuko diren paperontziak jarri, eserleku itxura hartuz hiri-altzarietara egokitu.		●	
Paperontzi gardenak jarri, barrukoa ikusteko modukoak (ondo edo gaizki erabili diren ikusteko).		●	
Kolore bakoitza kirol batekin identifikatu: Erreala (futbola), horia (Euskaltel, ziklismoa).		●	
Kartelak edo panpinak jarri mezu honekin: "Eskerrik asko ni erabiltzeagatik".			●
<b>Paperontzien kopurua eta garbiketa-zerbitzua</b>			
Garbi egon daitezela, sarriago hustu.	●		●
Ez jaso zigarro-puntak egoera benetan deigarria eta nazkagarria izan arte, jendea kontura dadin.	●	●	
Honda dezagun erraztatzeko makina.	●		
Aste batean zehar paperontzi gehiago jarri.	●		
Litxarreriak jateko guneak.	●		
Egun dauden paperontziak parke bakoitzaren zabalera osorako nahikoa diren ikusi.	●		
Aste batean paperontzi denak kendu.	●		
Parke desberdinetan funtzionamendu egokia aldiro kontrolatu.	●		
Paperontziak elkartzeko puntua izan daitezela.	●		
Paperontzi gehiago (betikoak eta hondakinak sailkatzekoak) leku hauetan: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jende asko elkartzen den tokietan.</li> <li>- Latxartegin gazteak elkartzen diren tokietan.</li> <li>- Kiroldegian eta futbol-zelaian.</li> <li>- Zabuak dauden San Ignazio auzoko parkean.</li> <li>- Ikastetxeetan.</li> <li>- Gozokiak saltzen dituzten denen inguruan.</li> <li>- Laubide auzotik Latxartegira.</li> <li>- Kioskoaren ondoan.</li> <li>- Tabernen inguruetan.</li> <li>- Urtatza</li> <li>- Espaloiak.</li> </ul>	●	●	●
Adinaren araberako paperontziak jarri.	●		
Erabilera kontrolatuko duten agenteak jarri. Udaltzainek errieta egin diezaietela paperontziak erabiltzen ez dituztenei		●	●

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Konponbideak (brainstorming eta brainwriting teknikak)	A taldea Iciar	B taldea Virginia	C taldea Zorione
Paperontzien ingurua margotu.		●	
Monumentuak bezalaxe seinalatu, "paperontzien ibilbidea".		●	●
Egun batean kale-garbitzaileei lagundu.			●
Toki zehatzetan pipa-azalak jasotzeko poltsa bereziak eskaini.	●		●
Sentsibilizazioa, heziketa, gizalegezko jokabideak sustatu			
Zikintzen duenak garbitzen du.	●		
Paperontziak erabiltzen dituztenak saritzeko modua aurkitu ("birziklapenaren herritar eredugarriena", paperontziak babesteko puntuak ...).	●	●	●
Heziketa, hitzaldiak,... ikastetxeetan paperontzien erabilera egokiari buruz.	●	●	●
Gazteen gunea: kontzertu bat bere inguruko paperontziak betetzen badituzte.	●		
Egun batean Guinness marka bat lortzen saiatu.	●		
Hiru hilabetetik behin egun bat garbiketa egiteko ("Erreka eguna"rekin egiten den moduan).	●	●	●
Garbiketa-lana erraztu.	●		
Gazteekin parkeetatik ibilaldi bat egin eta paperontziak haien aurrean hustu, nola erabiltzen diren ikus dezaten.	●		
Paperontziak erabiltzeko kanpainak egin, emaitzak azalduz, kalean leloak jarri,....	●	●	
Herri garbiena izateko legazpiarren konpromisoa lortzeko kanpaina egin: "Legazpi, Euskal Herriko herri garbiena".	●	●	●
Zaborraren asteburuko olimpiada-gymkhana.	●		●
Zikintzen duena edo paperontzia behar bezala erabiltzen ez duena seinalatu, zigortu, gaizki ikusi,.....	●	●	●
Hezitzaile bat jarri.	●		
Zabor guztia lurrera bota (egun batean edo aste batean jasotakoa,...) eta jendaurrean agerian utzi.	●		●
Edukiontzia horian jasotako hondakinekin jostailuak egiteko jardunaldia.	●		
Parkeetara hondakinik sortzen ez duen askaria bakarrik eraman dadila.	●		
Denok dugu zorua garbi mantentzeko obligazioa.	●		
Zaborra lurrera botako duenari txerri belarriak eta isatsa jarri eta herritik buelta bat eman dezala.	●		
Kartelak jarri paperontzien ondoan (ez bota pipa-azalak, ondo erabili,...) eta litxarrerriak saltzen diren tokietan,...	●	●	
Parkeko zikinkeria erakutsiko duten argazkiak jarri.	●		
Pailazoekin kanpainak egin.		●	
Herritarrei eta kale-garbitzaileei ideiak eskatu arazoari konponbidea emateko.		●	●
Erretiratuta dauden herritarrekin, gazteekin,... "kuadrillak edo taldeak" antolatu, borondatez informazioa eman eta paperontzien erabilera egokia azal dezaten.		●	
Paperontzietan jasotakoarekin zer egiten dena azalduz hitzaldiak antolatu.		●	

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Konponbideak (brainstorming eta brainwriting teknikak)	A taldea Iciar	B taldea Virginia	C taldea Zorione
Paperontziak erabiltzen ez dituztenen argazkiak leku agerian jarri.		●	
Birziklatzen ez dutenei eskuak pintura beltzarekin margotu.		●	
"Ez da garbiagoa gehiago garbitzen duena, zikintzen ez duena baizik".		●	
Pipa-azalak jaso eta zakuetan pilatu.		●	
Poltsa guztiak eta paperak zuhaitzetan zintzilikatu.		●	
Liskarra sortu zulo gabeko paperontziak jarriz.		●	
Latxartegi parkean paperak eta plastikoak jasoarazi irakasleei.		●	
Liskarra sortuko duten aurpegiak jarri paperontzietan.		●	
Bildutako zikinkeria atarien aurrean utzi.		●	
Birziklatutako zabor-kantitatearen truke zentimoak eman.		●	
Birziklatzen den bakoitzean zigilu bat jarri eta kopuru batera iritsitakoan sari bat eman.		●	
Paperontziak zaintzeko egun bat antolatu.			●
Txakurrak duten jabeak kontzientzia harrarazi.			●
Haur-antzerki txiki bat muntatu baina guztiontzat.			●
Lehiaketa antolatu: ea pipak nork jaten dituen ingurua zikindu gabe.			●
Guztiok paperontzi izan.			●
Kostu erantsia erakutsi herritarrei eta erakusten digutena ez dela betetzen erakutsi.			●
Guztiok sortzen dugun hondakinari buruz mentalizatzeko bideoak.			●
Garbi dauden beste herrietako parkeen argazkiak erakutsi.			●
<b>Beste ideia batzuk</b>			
Kanpaina bat egin litxarreriak saltzen dituzten dendekin: ontzien erabilera saihestu edo murriztu, saltoki horietan azalak jasotzeko plastikozko poltsak eman ditzatela, diruzati bat itzuli dendara norberak bere poltsa eramaten duenari, ...	●	●	●
Produktuak lurraren kolorekoak izan daitezela.	●		
Pipak jateko lokalak egokitu.	●		
Bilgarrietan, litxarrerien poltsetan,... paperontzira bota behar dela azaltzea argi eta garbi.	●	●	
Merkatutik kutsatu egiten duten produktuak erretiratu.	●		●
Produktuak ontziratuta gabe saldu.	●		
Paperontzien enpresa bat jarri eta enplegua sustatzen dugu.			●

Gainera, gaur esperimentatu dugun hirugarren sormen-teknikarekin, hau da, inbertsioarekin, bestelako ideia desberdinak sortu dira; ideia urratzaileagoak!



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Konponbideak (inbertsioaren teknika)	A taldea Iciar	B taldea Virginia	C taldea Zorione
<b>Paperontzien diseinua</b>			
Paperontziei ipurdia kendu eta zuloak jarri.	●	●	●
Paperontziek tinta-zurrusta bota dezatela.	●		
Paperontziei soinua jarri erabiltzen dutenak irainduz.		●	
Tu egiten duten paperontziak jarri.		●	
Paperontzi bakoitzean haizagailu bat jarri.		●	
<b>Paperontzien kopurua eta garbiketa-zerbitzua</b>			
Paperontziak kendu eta nahasmendua sortu, norberak bere zaborra etxera eraman dezan.	●	●	●
Dena lurrera, errefera,.... bota	●	●	●
Garbiketa-zerbitzua kendu. Egun edo aste zikina antolatu, garbiketa-zerbitzurik gabea.	●	●	●
Zabor-kamioiak zikinkeria parkeetara botatzeko erabili.	●		
Paperontzietan erabiltzeko debekua adieraziko duten seinaleak jarri.	●		
Zabortegi bat egin.	●		
Paperontzietan tapoiak jarri.	●		
Paperontzi ikaragarri handiak jarri.		●	
Paperontziak zuhaitzetara igo: ikus daitezela baina erabili ezinezkoak.		●	
Kale-garbitzaileei garbitzeko tresnak lapurtuko dizkiegu.	●		
Birziklatzeagatik kobratu.		●	
Paperontziak buruz behera jarri.		●	
Paperontziak parkeetatik 500 metrora jarri.		●	
Hondakinak leihotik behera bota.			●
Paperak udaletxetik kalera atera.			●
Paperontziak txorientzako habiak jartzeko erabili.			●
Zabor-kamioien gurgilak zulotu.			●
<b>Sentsibilizazioa, heziketa, gizalegezko jokabideak sustatu</b>			
Zaborra lurrera bota dadila sustatu: zikintzeagatik eta ez birziklatzeagatik sariak eman ("zenbat eta zikinago, ederrago").	●	●	●
Paperontziak erabiltzen duenari zigorra jarri.	●		
Zikinenei asteko paga igo.	●		
Isuna edo salaketa jarri zaborra lurretik jasotzen duenari.	●		
Zaborraren artean iraulaldiak antolatu.	●		
Bazter guztietan txiza egin.	●		
Udala eredu izan dadila bere zaborra plazara ateraz.	●		
Pintura-ontziak jarri, gehiago zikintzeko.		●	
Zabor-gerra.		●	
Zaborra zuzenean leihotatik bota.		●	
Bota besteek jasotzen dutena.		●	
Zaborra lurrera botatzen dutenei litxarrerriak oparitu.		●	
Astebururo kalean botila-jai handi bat antolatu.			●
Zabor irekien jardunaldiak.			●
Sasietatik zabor-kamioak beteta ekarri eta parkeetan hustu			●

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Konponbideak (inbertsioaren teknika)	A taldea Iciar	B taldea Virginia	C taldea Zorione
Beste ideia batzuk			
Maskarak oparitu.	●		
Pipak eta kakahueteak oparitu.	●		
Jai gehiago konfetiekin eta girlandekin.	●	●	●
Eremu publikoetan etxaldea sortu.	●		
Edozein motatako produktuak oparitu.	●		●
Agenda 21eko Foroa kendu.	●		
Herrira ijitoak ekarri.			●
Kaleak ardiekin bete.	●		
Erreka-eguna kendu.	●		
Usoak ekarri.			●

### Eta ideia guzti horiekin, zer?

Taldeak hasieran jarri duen helburua erabat beteta geratu da. Gora egindako proposamenak!

Legazpiko Udalak guztiak aztertzeko konpromisoa hartzen du eta, horietatik bat edo batzuk aukeratuko ditu epe motzean edo ertainean martxan jartzeko. Eta nola ez, horren berri emango diogu Foroari.

### Bi ohar eta **bukatu** egingo dugu tailerra

Burua eta neuronak ondo nekatuta baina, era berean, gustura emaitza onak lortu ditugulako, bukaera eman diogu gaurko tailerrari. Alde egin baino lehen Inma Hernandez teknikariak bi ohar adierazi ditu:

- Bihartik aurrera, otsailaren 25ean, arratsaldeko 14:00etan eta 20:30ean, *Foroaren urteurrena ospatzeko*, Urola telebistan *Legazpiko Agenda 21eko Foroan parte hartzen duten pertsonen egindako elkarrizketen bideoak* emango dituzte. Lekukotza interesgarriak eta baliozkoak, espazio horrek eman duenari buruz...
- Modu berean, martxoan eta Urola telebistan ere, "Klima aldaketa" mailan 2010eko amaieran Legazpiko udalerrak jaso zuen *Udalsarea 21eko sariaren bideoa* erakutsiko da. Hauek izan ziren saritutako bi ekimenak: "Pisuzko arrazoiak" kanpaina: Legazpin, autorik eta hondakinik gabe, ingurumenaren alde"; eta bestetik, xehekako merkataritza tradizionalen produktu ekologikoen gainean prestakuntza espezializatua eskaintzeko eta produktu horiekiko sentsibilizazioa lantzeko egin den ekimena.

Eta taldeak eskainitako azken irribarrea!!

**Gaurko eta azkeneko 10 urtetako zuen parte hartzeagatik,  
ESKERRIK ASKO eta beste horrenbeste iraun dezala!**